

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	URETAKO ESPEZIEAK GIZENTZEKO JARDUERAK SISTEMA ESEKIETAN ETA PARKEETAN	Iraupena	70
Kodea	MF1307_1		
Lanbide-arloa	ITSAS ETA ARRANTZA-JARDUERAK		
Lanbide-eremua	Akuikultura		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Uretako espezieak gizentzeko jarduerak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Lehorreko akuikulturako instalazioak prestatzea	Iraupena	30
	Gizentzeko teknikak lehorreko akuikulturako instalazioetan		70
	Uretako espezieak gizentzeko jarduerak instalazio flotatzaileetan eta ur azpikoetan		70
	Uretako espezieak gizentzeko jardueretan lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC1307_1 BI KUSKUKO MOLUSKUAK GIZENTZEA SISTEMA ESEKIETAN ETA PARKEETAN

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Hazkuntzarekin lotutako azpiegituren erabilerako mantentze-lanak deskribatzea, kontuan hartuz instalazio-mota, hazkuntzako egiturak eta ekipoak, eta ingurumena babesteko indarrean den legedia.

BI1.1 Haztegiko espezie batekin lotutako instalazioak deskribatzea, egitura-elementuen ezaugarriak azalduz eta hazkuntzako egiturak eta norbera babesteko makinak eta ekipoak identifikatuz.

BI1.2 Gizentzeko instalazioak eta ekipoak behar bezala funtzionatzeko erabilerako mantentze-lanak azaltzea.

BI1.3 Hazkuntza-eremu bat ereintzarako prestatzeko behar diren makinak, ekipoak eta materialak zerrendatzea.

BI1.4 Gizentze-prozesuan parte hartzen duten elementu suntsikorren eta ekipoen zerrenda bat egitea.

BI1.5 Tresna eta ekipoak erabili ondoren, nola garbitu eta biltegitatu behar diren azaltzea.

A2: Indibiduok biltzeko lanak gizendu beharreko espeziearekin lotzea, hazkuntza-sistema bakoitzerako protokolo egokiak aplikatuz.

BI2.1 Hazia ateratzeko metodoak identifikatzea, hazi beharreko espeziearen arabera.

BI2.2 Hazia biltzeko teknikak deskribatzea eta bildu beharreko espezie bakoitzerako kolektoreak identifikatzea, araudi espezifikoak kontuan hartuz.

BI2.3 Lortutako hazia gizentze-eremura lekualdatzeko eragiketak deskribatzea, kalitate-kontrolako arauak betez.

BI2.4 Hazia gizentze-instalazio batean egokitze estabulazio-unitatea identifikatzea, espeziea hazteko kondizioak kontuan hartuz.

A3: Haztegiko espeziearen hazkuntza kontrolatzea, hazkuntza-sistema, araudia eta ingurumeneko alderdiak kontuan hartuz.

BI3.1 Hazkuntza-sistema batean hazitako loteen laginketa deskribatzea, behar diren materialak aipatuz.

BI3.2 Haztegian hazitako espezie baterako biomasa eta dentsitatea kontrolatzeko metodoak aipatzea.

BI3.3 Hazia sailkatzeko eragiketak zerrendatzea, hazkuntza-sistemaren arabera, eragiketa horiek behar diren ekipoekin eta tresnekin lotuz.

BI3.4 Laginketak eta biometriak egiteko ekipoak, tresnak eta materialak zerrendatzea.

BI3.5 Lehiakideek eta harrapariak eragindako egoera kritikoak hautematea eta egoera horiek saneatzeko teknikak —hazkuntza-sistemarako egokiak— aplikatzea.

BI3.6 Hazkuntzari eragiten dioten aldagai fisiko-kimikoak neurtzeko ekipoak identifikatzea.

BI3.7 Parke batean laginak hartzeko erabiltzen diren neurketa-ekipo kartografikoak ezagutzea.

BI3.8 Arazo patologikoek hazkuntzaren errendimenduan duten eragina minimizatzeko prebentzio-neurriak zerrendatzea.

A4: Azken produktua ateratzea, sailkatzea eta prestatzea hazi beharreko espeziearen eta indarrean den legediaren arabera.

BI4.1 Produktuak arte desberdinekin ateratzeko teknikak zerrendatzea.

BI4.2 Azken produktua biltzeko eta sailkatzeko makinak eta ekipoak hazkuntza-sistemarekin erlazionatzea.

BI4.3 Produktua estabulatzeko kondizioak identifikatzea, azken jomugaren arabera.

BI4.4 Ezarritako legeriaren arabera, azken produktuak merkaturatzeko behar dituen ezaugarriak aipatzea.

Edukiak:

1. Egituretan edo hondoaren gainean haz daitezkeen espezieak

- Biologia eta habitata.
- Espezieak eta espezie bakoitzarekin lotutako hazkuntza-instalazio-mota:
 - Parkea: hesoletan, jasota eta hondoaren gainean.
 - Esekita: parrilladurak, txanelak eta tretzak.

2. Hazkuntza-instalazioak. Erabilerako mantentze-lanak.

- Hazkuntza-parke bati lotutako ekipoak eta makinak.
 - Ekipamendu-motak: besteak beste, sareak, plastikozko hesiak, mahaiak/astoak, hazkuntza-poltsak.
 - Makina-motak: besteak beste, traktoreak, uzta biltzeko makinak, goldeak, motoponpak, hidrogarbigailuak.
- Hazkuntza-sistema eseki bati lotutako ekipoak eta makinak.
 - Ekipamendu-motak: besteak beste, sareak, mailak, sokak, ziertzak.
 - Makina-motak: besteak beste, garabia, harea kentzeko makina, lotzeko makina, sailkatzeko makina, hidrogarbigailuak.
- Laborategiko ekipoak eta parametro fisiko-kimikoak kontrolatzekoak.
- Landa-tresnak: besteak beste, itsaski-bilketako arteak, baheak, laginketak.
- Hazkuntza-parke baten seinalizazioa: itsasoko mapak eta GPSa.
- Sistema esekietako makinak, ekipoen eta materialen erabilerako mantentze-lana
- Instalazioak eta ekipoak garbitzeko eta desinfektatzeko sistemak.
- Ekipoen eta materialen inbentarioak egitea eta biltegitratzea

3. Moluskuak sistema esekietan eta parkeetan hazteko teknikak.

- Hazkuntzaren faseak.
- Haziaren hornikuntza eta hautaketa:
 - Haziaren kalitate-irizpideak.
 - Hazi ingurune naturaletik ateratzea.
 - Finkatzeko sokak eta kolektoreak.
 - Kolektoreetan hazia biltzea.
 - Hazi garraiatzeko kondizioak.
- Hazkuntza-parke baten prestakuntza.
 - Substratua eta hazkuntza-egiturak prestatzea.
 - Harrapariak eta lehiakideak kontrolatzeko sistemak.
- Moluskuen hazkuntzaren eboluzioa kontrolatzeko eragiketak.
 - Laginketa-teknikak.
 - Hazkuntza-parametroak eta -baldintzak.
 - Parametro fisiko-kimikoen neurketa eta erregistroa.
 - Dentsitatearen eta biomasaren kontzeptua.
 - Banaketak, sailkapenak eta mehasteak.
 - Kontroleko egoera-orriak.
- Ur azpiko egiturekin eta hondoko hazkuntzarekin lotutako fauna eta flora:
 - Epibionteak.
 - Lehiakideak eta harrapariak.
- Indibiduoak garbitzea.
- Jardueraren ingurumen-alderdiak.
- Hazkuntza-sistemari aplikatu behar zaizkion prebentzio-neurriak:
 - Estresak moluskuen hazkuntzan duen eragina.
 - Gaixotasunak transmititzeko moduak. Hazkuntzetan duen eragina.
 - Laginak hartzea arazo patologikoak detektatzeko.

4. Azken produktuaren uzta eta prestaketa

- Uzta biltzeko sistemak.
- Azken produktua sailkatzeko sistemak.
- Bildutako indibiduoak produktuaren helmugaren arabera estabulatzeko.
- Garraiatzean azken produktuaren bideragarritasunari eragiten dioten parametroak: tenperatura, hezetasuna, karga.

5. Laneko arriskuen prebentzioa sistema esekietan eta parkeetan.

- Lan-arriskuen prebentzio-plana
- norbera babesteko ekipoak.
- Produktu kimikoak erabiltzea. Fabrikazio-fitxa teknikoak.

6. Azken produktua hazteari eta merkaturatzeari dagokion legedia

- Azken produktua merkaturatzeko aplikatu behar den oinarriko araudia.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Uretako espezieak gizentzeko jarduerak.